

Atzo, Donostiako zinemaldiaren baitan Kresala zineklubak bultzatuta **“ZINEKLUBAK ETA ZINEMALDIAK: IRAGANA, ORAINA ETA GEROA”** hausnarketa foroa gauzatu zen.

Saioa Javier Tolentino zinemagile eta zinemagintzan aditua den kazetariak gidatu zuen. Hitza hartzen lehena Sara Hernandez izan zen “Zinemaldia70: historia posible guztiak” ikerketa proiektuko ordezkaria. 70 hamarka amaieran Zinemaldiak izan zuen “Pueblos y Barrios” saila ikertzen igaro zituen Sarak Elias Querejeta Zine Eskolan egindako urte eta erdiak. Zinemaldiaren atal honek sail desberdinetako filmak euskal herri osoko 150 herri baina gehiagotara eraman zituen. Herrietan zineklubak eta auzo elkarteak izaten ziren saioak dinamizatzen zituztenak, ekintza horri esker zinemaldia herrikoia bihurtu zen, zine zaleon elkargune bilakatu arte. Bertan eman ziren gaur egun ohikoak diren lehen solasaldiak zinemaldien baitan. 80. Hamarkada hasieran zineklubek gainbeherarekin bat sailak ere indarra galdu zuen desagertu zen arte.

GOGOETA PLAZA

K-SARIAK

**ZINEMALDI ETA ZINEKLUBAK:
IRAGANA, ORAINA ETA GEROA**

**IRAILAK 23 12:00
KELER ESPAZIOA**
* Akreditazio eta gonbidapenekin

DINAMIZATZAILEA
Javier Tolentino

PARTEHARTZAILEAK
-Sara Hernandez Zinemaldia 70: historia posible guztiak ikerketa taldeko ordezkaria
-Joan Sala Filmin eta Atlantida film fest-eko programatzailea eta edizio koordinatzailea
-Ander Gisasola K sarien talde bultzatzaileko kidea

Logos: GOGOETA PLAZA, K-SARIAK, FILMIN, SSIFF, ANIMA DEBATA, MEDIA WITTEB, CinesTele

Ondoren Kresala zineklubeko Ander Gisasolak K sarien sarea aurkeztu zuen, aurtengoa inguruko zineklub eta zine jaialdiekin abiarazitako ekimena. 2019-an zineklubek topaketa egin zutenetik elkarlan proiektu berriak eraikitzeko prestutasuna aurkeztu zuten denek. Hango ernamuinetik sortu zen K sariak egitasmoa eta atzean duen sarea. Sarea osatzen duten zine jaialdi bakoitzean zineklubetako kideek osatutako epaimahai desberdin batek zineklubek sarean zabaltzea merezi duen filma bat aukeratuko dute. Ondoren sareko zineklubek pelikula horiek beraien programazioan txertatzeko aukera izango dute, saio monografikoak antolatuz edo laburmetraia desberdinak beraien ohiko saioetan eskainiz. Helburu nagusia herri desberdinetara zine jaialdietako eskaintza gerturatzea da, eta era berean zineklubek arteko sarea sendotzea, etorkizunean proiektu berriak eraiki ahal izateko.

Hitza hartzen hurrengoa Joan Sala izan zen Filmin eta Atlantida zine jaialdiko programatzaile eta edizio koordinatzailea. Beraien aldetik beti egon direla zine eragile desberdinekin lan egiteko prest azaldu zuen, Filminen azken denboraldietan zine aretoetan filmak zabaltzeko lanean dabiltzala azaldu zuen, zineklubak bide horretan bidelagun beharrezkoak dituztela esan du,

adibidetzat Josep filmea jarri zuen 15 kopiarekin hasitako bideak 4 hilabetetara 50 kopiarekin amaitu zuen.



Pablo Gomez-en argazkia (Zinemaldia)

Ander Gisolak esan zuen “**K sariak**” Inguruko elkarteekin lan egiteko proiektu xume bezala jaio zen arren, berehala konturatu direla uste baino eragin handiagoa duela, egitasmoa publikoan aurkeztu eta hurrengo egunean “*Cineinforme*” aldizkariko deia jaso zutela kontatu zuen Gisolak, media partner izateko eskaintza eginez. Horrek azken aldin nabaritzen hasi diren joera bat baieztatzen diola esan zuen. Zineklubak irabazi asmorik gabeko elkarteak izan arren industriako zati garela, zineklubei esker historian zehar jendeak zineaz gozatu eta zuzenari berriak deskubritu izan dituela.

Sara Hernandezek esan zuen zineklubek industriaren barruan duten garrantzia aldarrikatu behar dutela, baita historikoki egin duten lana ere. Azken batean, komunitatea sortzen dutela eta guzti hori gizarteratzea funtsezkoa dela.

Joan Sala esandako denarekin bat egiten zuela esan eta film berrien nagusikeriaren aurka borroka egin behar dutela elkarrekin. Georgiako film txiki bat ere izan daitekeelako momentuko proposamen berri eta erakargarria.

Kresala zineklubeko Ander Gisolak, primizia moduan aurreratu zuen **REC, D’A** eta **AMERICANA** jaialdiekin akordioak lortu dituztela inguruko zineklubetan jaialdi horietan egondako lanak zinemaldiak gauzatu eta hurrengo asteetan ikusi ahal izateko. Sarea egonkortuz etorkizunean programazio aukera gehiago sortuko direlakoan daude.

Amaitzeko antolatzaileen aldetik zineklub eta zine jaialdiei deia luzatu zieten etorkizunean K sarien sareko parte izan zitezten, pixkanaka denen artean zinemagintza mota desberdinak txoko gehiagotara iristeko, horretarako k_sariak@kresalazinekluba.com helbidea erabili dezaketela.